

ARABAKO FORU ALDUNDIA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

Zerga Premiatasuneko Araugintza Dekretuak

6.409

3/2005 ZERGA-PREMAIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUA, irailaren 27ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, alkoholdun edarien eta edari eratorrien gaineko zergaren eta tabakoaren inguruko lanen gaineko zergaren tasak aldatzea onartzen da.

I.- Irailaren 16ko 12/2005 Errege Dekretu-legeak osasun finantzaketaren arloko presako neurri zehatzak onartzen ditu. Beste neurri batzuen artean, xedapen orokor horrek, alde batetik, alkoholdun edarien eta edari eratorrien gaineko zergaren tasa aldatzen du, eta, beste aldetik, tabakoaren inguruko lanen gaineko zergaren tasa.

Horri buruz, irailaren 16ko 12/2005 Errege Dekretu-legeak honakoa dio: alkoholdun edarien eta edari eratorrien gaineko zergari dagokionez, horien tasa % 10 gehiago izango da. Tabakoaren inguruko lanen gaineko zergari dagokionez, berriz, zigarroei ezartzen zaien tasa berezia % 5,3 gehiago izango da; "ad valorem" tasa, ordea, ia ehuneko puntu bat gehiago izango da. Tabakoaren inguruko gainerako lanen gaineko "ad valorem" zerga-tasak, tasa berriak ezartzearen zigarroen fiskalitateak jasaten duen igoera orokorraren antzerako proportzioan gehituko dira.

II.- Kontzertu Ekonomikoak, gai honi dagokionez, zera dio: "zerga bereziek itundutako zerga izaera izango dute, eta Estatuk une bakoitzean ezarritako funtsezko arauetan eta arau formaletan oinarrituko dira. Edozein modutan, Lurralde Historikoetako erakunde eskudunek aitorpenerako eta ordainketarako ereduak onartu ahal izango dituzte. Eredue horietan, gutxienez, lurralde komuneko eredueta datozen datu berak agertuko dira, eta likidazio-epe bakoitzean egin beharreko ordainketetarako epeak adieraziko dira. Epe horiek eta Estatuko Administrazioak ezarritakoak antzekoak izango dira".

Ondorioz, Arabako Lurralde Historikoaren zerga-sistemara egokituko da irailaren 16ko 12/2005 Errege Dekretu-legearen zerga-erdukia.

Zerga-araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena ikusi da.

Horiek horrela, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan eztabaidatu ondoren, Arabako Zergei buruzko 1981eko maiatzaren 31ko Foru Arau Orokorrak 13. artikuluan eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak foru aldundiari ematen dizkieten eskumenak baliatuz, premiazko arrazoiengatik, ondokoa

XEDATU DUT:

Lehenengo artikulua.- Alkoholdun edarien eta edari eratorrien gaineko zergaren tasak aldatzea.

Xedapen orokor hau indarrean sartzen denetik hasita, otsailaren 16ko 1/1999 Zerga-premiazko Araugintzako Dekretua, zerga bereziak arautzen dituen, hauetan aldatuko da:

Bat. 23. artikulua 4. eta 5. paragrafoak honela geldituko dira idatzita:

"4. Tarteko Produktuei buruzko Zerga Kanarietan eskatu ahal izango da honako tasa hauekin:

a) Gehienez % 15eko alkohol-gradu bolumetrikoa duten tarteko produktuak: 26,09 euro hektolitro bakoitzeko.

b) Gainontzeko tarteko produktuak: 43,47 euro hektolitro bakoitzeko.

5. Kanarietan, alkoholdun edariei eta edari eratorriei 649,66 euroko zerga-tasa aplikatuko zaie alkohol hutsaren hektolitro bakoitzeko, Zerga-Premiazko Araugintzako Dekretuaren 40. eta 41. artikuluetan ezarritakoaz gain."

Disposiciones y Resoluciones Administrativas

Decretos Normativos de Urgencia Fiscal

6.409

DECRETO NORMATIVO DE URGENCIA FISCAL 3/2005, del Consejo de Diputados de 27 de septiembre, que aprueba la modificación de los tipos impositivos de los Impuestos sobre el alcohol y las bebidas alcohólicas y sobre las Labores del Tabaco.

I.- El Real Decreto-Ley 12/2005, de 16 de septiembre, aprueba determinadas medidas urgentes en materia de financiación sanitaria. Entre otras medidas, la citada disposición general procede a modificar, por una parte, los tipos impositivos de los impuestos sobre el alcohol y las bebidas alcohólicas y, por otra parte, los tipos impositivos del Impuesto sobre las Labores del Tabaco.

A este respecto, la exposición de motivos del Real Decreto-Ley 12/2005, de 16 de septiembre, señala que "en lo que se refiere a los impuestos sobre el alcohol y bebidas alcohólicas, sus tipos impositivos se incrementan un 10 por 100. En cuanto al Impuesto sobre las Labores del Tabaco, el tipo específico aplicable a los cigarrillos se incrementa un 5,3 por 100, mientras que el tipo "ad valorem" se incrementa casi en un punto porcentual. Los tipos impositivos "ad valorem" aplicables al resto de labores del tabaco se incrementan en una proporción similar a la elevación global que sufre la fiscalidad de los cigarrillos por aplicación de los nuevos tipos".

II.- El Concierto Económico señala, a los efectos que ahora interesa, que "los Impuestos Especiales tienen el carácter de tributos concertados que se regirán por las mismas normas sustantivas y formales establecidas en cada momento por el Estado. No obstante, las Instituciones competentes de los Territorios Históricos podrán aprobar los modelos de declaración e ingreso, que contendrán al menos los mismos datos que los del territorio común, y señalar plazos de ingreso para cada período de liquidación, que no diferirán sustancialmente de los establecidos por la Administración del Estado".

En consecuencia procede adaptar al sistema tributario del Territorio Histórico de Álava el contenido tributario del Real Decreto-Ley 12/2005, de 16 de septiembre.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy, en uso de las atribuciones que concede a la Diputación Foral el artículo 13 de la Norma Foral General Tributaria de Álava, de 31 de mayo de 1981, y la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, -de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava-, por razones de urgencia,

DISPONGO:

Artículo Primero.- Modificación de los tipos impositivos de los impuestos sobre el alcohol y las bebidas alcohólicas.

Con efectos a partir de la entrada en vigor de la presente disposición general, el Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999, de 16 de febrero, regulador de los Impuestos Especiales, se modifica en los siguientes términos:

Uno. Los apartados 4 y 5 del artículo 23 quedan redactados como sigue:

"4. El Impuesto sobre Productos Intermedios será exigible en Canarias a los siguientes tipos impositivos:

a) Productos intermedios con un grado alcohólico volumétrico adquirido no superior al 15 por 100 vol.: 26,09 euros por hectolitro.

b) Los demás productos intermedios: 43,47 euros por hectolitro.

5. El Impuesto sobre el Alcohol y Bebidas Derivadas se exigirá en Canarias al tipo de 649,66 euros por hectolitro de alcohol puro, sin perjuicio de lo dispuesto en los artículos 40 y 41 de este Decreto Normativo de Urgencia Fiscal."

Bi. 26. artikulua honela gelditu da idatzita:

"26. artikulua.- Zerga-tasak.

1. Zerga honen menpe dauden produktuei ondorengo epigrafeetan azaltzen diren zerga-tasak aplikatuko zaizkie:

1.a) epigrafea. Gehienez % 1,2ko alkohol-gradu bolumetrikoa duten produktuak: 0 euro hektolitro bakoitzeko.

1 b) epigrafea. % 1,2 eta % 2,8 bitarteko alkohol-gradu bolumetrikoa duten produktuak: 2,75 euro hektolitro bakoitzeko.

2 epigrafea. % 2,8 baino gehiagoko alkohol-gradu bolumetrikoa eta 11 baino gutxiagoko Plato-gradua duten produktuak: 7,48 euro hektolitro bakoitzeko.

3 epigrafea. 11 eta 15 bitarteko Plato-gradua duten produktuak: 9,96 euro hektolitro bakoitzeko.

4 epigrafea. 15 eta 19 bitarteko Plato-gradua duten produktuak: 13,56 euro hektolitro bakoitzeko.

5 epigrafea. 19 baino gehiagoko Plato-gradua duten produktuak: 0,91 euro hektolitro bakoitzeko eta Plato-gradu bakoitzeko.

2. Aurreko lerroaldean ezarritakoaren ondorioetarako, Plato-gradua zehazterakoan 0,2 graduko tolerantzia ere onartuko da."

Hiru. 34. artikulua honela gelditu da idatzita:

"34. artikulua.- Zerga-tasa.

23. artikuluan ezarritakoaz gain, honako zerga-tasak eskatuko dira:

a) Gehienez % 15eko alkohol-gradu bolumetrikoa duten tarteko produktuak: 33,32 euro hektolitro bakoitzeko.

b) Gainontzeko tarteko produktuak: 55,53 euro hektolitro bakoitzeko."

Lau. 39. artikulua honela gelditu da idatzita:

"39. artikulua.- Zerga-tasa.

Zerga-tasa 830,25 eurokoa izango da alkohol hutsaren hektolitro bakoitzeko, 23., 40. eta 41. artikuluetan ezarritakoaz gain."

Bost. 40. artikulua 2. paragrafoaren a) izkiaren 5. zenbakia honela gelditu da idatzita:

"5.- Karga-tasa: Zergaren karga-tasa 726,54 eurokoa izango da alkohol hutsaren hektolitro bakoitzeko. Zerga Kanarietan eskatu ahal denean, 565,66 euroko zerga-tasa aplikatuko da alkohol hutsaren hektolitro bakoitzeko. Zenbaki honetan ezarritakoa 41. artikuluan ezarritakoaz gain aplikatuko dela ulertzen da".

Sei. 40. artikulua 2. paragrafoaren b) izkiaren 5. zenbakia honela gelditu da idatzita:

"5.- Karga-tasa: Zergaren karga-tasa 726,54 eurokoa izango da alkohol hutsaren hektolitro bakoitzeko. Zerga Kanarietan eskatu ahal izanez gero, 565,66 euroko zerga-tasa aplikatuko da alkohol hutsaren hektolitro bakoitzeko. Zenbaki honetan ezarritakoa 41. artikuluan ezarritakoaz gain aplikatuko dela ulertzen da".

Zazpi. 40. artikulua 4. paragrafoa honela gelditu da idatzita:

"4. Europar Batasuneko kide diren beste Estatu batzuetan dauden destilatzaile txikiak fabrikatutako edari eratorriak sartzea.

Europako Batasuneko kide diren beste estatu batzuetan dauden produktore independenteek fabrikatutako edari eratorriei aplikatuko zaien zerga-tasa 726,54 eurokoa izango da alkohol hutsaren hektolitro bakoitzeko, urtean gehienez alkohol hutsaren 10 hektolitro ekoizten badute. Zerga Kanarietan eskatu ahal denean, 565,66 euroko zerga-tasa aplikatuko da alkohol hutsaren hektolitro bakoitzeko."

Zortzi. 41. artikulua honela gelditu da idatzita:

"41. artikulua.- Uztagileen erregimena.

Artisautzako destilazioaren bitartez lortutako edari eratorriak fabrikatik bertatik uztagileek zuzenean kontsumitzeko erabiltzen bada, eta erabili ere erregelamendu bidez ezartzen diren modu eta baldintzetan erabiltzeko bada, 195,98 euroko tasa aplikatuko da alkohol hutsaren hektolitro bakoitzeko. Zerga Kanarietan eskatu ahal denean, 151,86 euroko zerga-tasa aplikatuko da alkohol hutsaren hektolitro bakoitzeko. Aplikatuko den tasarik handiena uztagile eta urte bakoitzeko alkohol hutsaren 16 litrori dagokiona izango da".

Dos. El artículo 26 queda redactado como sigue:

"Artículo 26.- Tipos impositivos.

1. El Impuesto se exigirá, con respecto a los productos comprendidos dentro de su ámbito objetivo, conforme a los siguientes epígrafes:

Epígrafe 1.a). Productos con un grado alcohólico volumétrico adquirido no superior a 1,2 por 100 vol.: 0 euros por hectolitro.

Epígrafe 1.b). Productos con un grado alcohólico adquirido superior a 1,2 por 100 vol. y no superior a 2,8 por 100 vol.: 2,75 euros por hectolitro.

Epígrafe 2. Productos con un grado alcohólico volumétrico adquirido superior a 2,8 por 100 vol. y con un grado Plato inferior a 11: 7,48 euros por hectolitro.

Epígrafe 3. Productos con un grado Plato no inferior a 11 y no superior a 15: 9,96 euros por hectolitro.

Epígrafe 4. Productos con un grado Plato superior a 15 y no superior a 19: 13,56 euros por hectolitro.

Epígrafe 5. Productos con un grado Plato superior a 19: 0,91 euros por hectolitro y por grado Plato.

2. A los efectos de lo establecido en el apartado anterior, en la determinación del grado Plato se admitirá una tolerancia de hasta 0,2 grados."

Tres. El artículo 34 queda redactado como sigue:

"Artículo 34.- Tipo impositivo.

Sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 23, el Impuesto se exigirá a los siguientes tipos impositivos:

a) Productos intermedios con un grado alcohólico volumétrico adquirido no superior al 15 por 100 vol.: 33,32 euros por hectolitro.

b) Los demás productos intermedios: 55,53 euros por hectolitro."

Cuatro. El artículo 39 queda redactado como sigue:

"Artículo 39.- Tipo impositivo.

El Impuesto se exigirá al tipo de 830,25 euros por hectolitro de alcohol puro, sin perjuicio de lo dispuesto en los artículos 23, 40 y 41."

Cinco. El número 5º de la letra a) del apartado 2 del artículo 40 queda redactado como sigue:

"5.º Tipo de gravamen. El Impuesto se exigirá al tipo de 726,54 euros por hectolitro de alcohol puro. Cuando el Impuesto sea exigible en Canarias, el tipo será de 565,66 euros por hectolitro de alcohol puro. Lo dispuesto en este número se entiende sin perjuicio de lo establecido en el artículo 41."

Seis. El número 5º de la letra b) del apartado 2 del artículo 40 queda redactado como sigue:

"5.º Tipo de gravamen. El Impuesto se exigirá al tipo de 726,54 euros por hectolitro de alcohol puro. Cuando el Impuesto sea exigible en Canarias, el tipo será de 565,66 euros por hectolitro de alcohol puro. Lo dispuesto en este número se entiende sin perjuicio de lo establecido en el artículo 41."

Siete. El apartado 4 del artículo 40 queda redactado como sigue:

"4. Introducción de bebidas derivadas fabricadas en otros Estados miembros por pequeños destiladores.

El tipo aplicable en relación con las bebidas derivadas fabricadas por productores independientes situados en otros Estados miembros que obtienen una producción anual que no exceda de 10 hectolitros de alcohol puro, será de 726,54 euros por hectolitro de alcohol puro. Cuando el Impuesto sea exigible en Canarias, el tipo será de 565,66 euros por hectolitro de alcohol puro."

Ocho. El artículo 41 queda redactado como sigue:

"Artículo 41.- Régimen de cosechero.

Cuando las bebidas derivadas obtenidas en régimen de destilación artesanal se destinen directamente desde fábrica al consumo de los cosecheros, en la forma y con las condiciones que se establezcan reglamentariamente, el tipo impositivo aplicable será de 195,98 euros por hectolitro de alcohol puro. Cuando el Impuesto sea exigible en Canarias, el tipo aplicable será de 151,86 euros por hectolitro de alcohol puro. La aplicación de estos tipos se limitará a la cantidad de bebida equivalente a 16 litros de alcohol puro por cosechero y año."

Bigarren artikulua.- Tabakoaren inguruko lanen gaineko zergaren tasak aldatzea.

Otsailaren 16ko 1/1999 Zerga-premiazko Araugintzako Dekretuaren 60. artikulua, zerga bereziak arautzen dituen, honela gelditu da idatzita:

"60. artikulua.- Zerga-tasak.

Honako tarifa honen arabera izango da zerga:

1 epigrafea. Puru eta purutxoak: % 12,71.

2 epigrafea. Zigarroak: Honako zerga-tasak aplikatuko zaizkie aldi berean:

a) Tasa proporzionala: % 54,95.

b) Tasa berezia: 4,20 euro 1.000 zigarroko.

3 epigrafea. Biltzeko tabako xehea: % 38,46.

4 epigrafea. Tabakoaren inguruko gainerako lanak: % 22,87."

AZKEN XEDAPENAK**Lehenengoa.- Indarrean izatea.**

Zerga-premiazko araugintzako dekretu hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean jarriko da indarrean eta 2005eko irailaren 17tik aurrera izango ditu ondorioak.

Bigarrena.- Gaitzea

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezko diren bestelako xedapenak emateko.

Hirugarrena.- Biltzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga-premiazko araugintzako dekretu hau Arabako Biltzar Nagusietara bidaliko da baliozkotu edo erreboka dezaten, indarrean dagoen arautegiarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko irailaren 27a.- Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak

6.077

58/2005 FORU DEKRETUA, irailaren 13ko Diputatuen kontseiluarena. Honen bidez, Arabako Lurralde Historikoan 2004/2005 ikasturtean eskola kirola bultzatzeko diru-laguntzen deialdia eta oinarriak onartzen dira. Ikastetxeek eta irabazteko asmorik gabeko elkarteek jasoko dituzte diru-laguntza horiek.

Arabako Foru Aldundiaren Kultura, Gazteria eta Kirol Sailak eskola kirola Arabako Lurralde Historikoan ikastetxeen eta irabazteko asmorik gabeko elkarten bidez garatzeko diru-laguntzen deialdia egitea proposatzen du. Ikastetxeek eta elkarteek eskola kirolaren 2004-2005 kanpainan izan duten parte hartzeagatik emango dira diru-laguntzak, eta 450.000 euroko zuzkidura izango dute.

Azken urteotan izan den diru-laguntzen filosofia mantentzea da helburua, eta hurrengo urteetan ere berdin jarraitzeko borondatea. Horretarako salbuespen bakarra diru-laguntza horiek emateko ekitaldi bakoitzean esleituko diren aurrekontuaren kredituak izango dira, bai eta urtero egingo diren deialdietan diru-laguntzen eskabideak aurkezteko datak zehaztea ere. Hori guztia urtero egiten den deialdi bakoitzean zehaztuko da.

Bestalde, diru-laguntza hauek lortzeko oinarri argi eta zehatzak ezarri behar dira, objektibotasuna, lehia eta publizitate printzipioak bermatzeko. Ezaugarri horiek izan behar ditu diru-laguntzetarako deialdi orok, Diru-laguntzen Lege Orokorrean, azaroaren 17ko 38/2003 zenbakikoan, xedatzen den moduan. Bestalde, diru-laguntza horiek zertarako erabiltzen diren jakiteko eta kontrolatzeko bideak ezarri behar dira.

Horregatik guztiagatik, Kultura, Gazteria eta Kirol Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bileran aztertu ondoren, honakoa

XEDATU DUT:

Lehenengo.- eskola kirola Arabako Lurralde Historikoan ikastetxeen eta irabazteko asmorik gabeko elkarten bidez sustatzeko diru-laguntzen deialdia onartzen da. eskola kirolaren 2004-2005 kan-

Artículo Segundo.- Modificación de los tipos impositivos del Impuesto sobre las Labores del Tabaco.

El artículo 60 del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999, de 16 de febrero, regulador de los Impuestos Especiales, queda redactado como sigue:

"Artículo 60.- Tipos impositivos.

El Impuesto se exigirá conforme a la siguiente tarifa:

Epigrafe 1. Cigarros y cigarrillos: 12,71 por 100.

Epigrafe 2. Cigarrillos: Estarán gravados simultáneamente a los siguientes tipos impositivos:

a) Tipo proporcional: 54,95 por 100.

b) Tipo específico: 4,20 euros por cada 1.000 cigarrillos.

Epigrafe 3. Picadura para liar: 38,46 por 100.

Epigrafe 4. Las demás labores del tabaco: 22,87 por 100."

DISPOSICIONES FINALES**Primera.- Entrada en vigor.**

El presente Decreto Normativo de Urgencia Fiscal entrará en vigor el día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava y surtirá efectos desde el 17 de septiembre de 2005.

Segunda.- Habilitación.

Se autoriza a la Diputación Foral de Álava para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación de la presente disposición general.

Tercera.- Remisión a Juntas Generales.

Este Decreto Normativo de Urgencia Fiscal se someterá a las Juntas Generales de Álava, para su convalidación o revocación, de conformidad con lo establecido en la normativa vigente.

Vitoria-Gasteiz, a 27 de septiembre de 2005.- El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.- El Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

Decretos Forales del Consejo de Diputados

6.077

DECRETO FORAL 58/2005, en Consejo de Diputados de 13 de septiembre, que aprueba la convocatoria y bases reguladoras de las subvenciones para el desarrollo del Deporte Escolar 2004/2005 en el Territorio Histórico de Álava, a través de Centros Educativos y Entidades sin ánimo de lucro.

El Departamento de Cultura, Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Álava, propone la Convocatoria de subvenciones para el desarrollo del Deporte Escolar en el Territorio Histórico de Álava, a través de Centros Educativos y Entidades sin ánimo de lucro, por su participación en la Campaña de Deporte Escolar 2004/2005, con una dotación de 450.000 euros.

Se trata de mantener una línea de subvenciones existente en los últimos ejercicios y con voluntad de permanencia durante los próximos años, con la única salvedad de los créditos presupuestarios que se consignen en cada ejercicio, para esta línea subvencionable que habrán de autorizarse y de las fechas de presentación de las correspondientes solicitudes de subvención, cuestión que será objeto de las convocatorias anuales que se realicen.

Por otro lado, se considera necesario establecer unas bases claras y concretas para acceder a estas subvenciones, que garanticen los principios de objetividad, concurrencia y publicidad, comunes a cualquier convocatoria de subvenciones, tal como prevé la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y, de otra parte, la fijación de unos mecanismos que permitan conocer y controlar el destino de estas subvenciones.

En su virtud a propuesta del Diputado Foral titular del Departamento de Cultura, Juventud y Deportes y previa deliberación del Consejo de Diputados, en sesión celebrada por el mismo en el día de hoy

DISPONGO:

Primero.- Aprobar la Convocatoria de subvenciones para el desarrollo del Deporte Escolar en el Territorio Histórico de Álava, a través de Centros Educativos y Entidades sin ánimo de lucro, por su par-